

1950-VI-24

Iruñan, Ekauta jauregian, 1950'gk. Garagarrilaren ogeitalauan ospatzen da aundikiro Lekuona euskaltzain barri jaunaren sarrera.

Naparroako Ekautak, Euskaltzaindiaren eskariari maitekiro erantzunik, bere magalpean artu dau yaialdi au eta Ekauta-jauregiko batzar-gela eder baten toki emon dautso.

Bertan batzen dira Azkue, Krutwig, Seminario, Lekuona ta Oleaga Euskaltzainak, Arellano ta Uranga, Naparralgunak, Gortari Iruñako Endorea ta Esparza euskaltzain urgazlea, Arelano jauna maipuru dala. Oste aundia dago ikusle ta entzule.

Oleaga Zadorlariak, araudiak agintzen dauenez, batzarraren eginkizuna azaltzen dau, eskerrak emonaz Naparroako Ekautari yai au egiteko emon daun laguntasunari dagokanez.

Lekuona euskaltzain barriak dirakur bere sarrera-itzaldia, "Euskal-Tokiizenetan Kurutzearen izena" da bere gaia. Ta oso ederto, sakon eta zabal azaltzen dau gai ori. Txalo sutsu ta ugariak artzen ditu amaieran.

Seminario jaunak darantzutso itzaldi labur ta polit bategaz. Onek bere, txalo biziak artzen dauz.

Zadorlariak aitatten dauz artu diran poz-agurrak; Etxegarai ta Etxaide euskaltzainenak, Lekarozko ikatetxe-buruarena, eta beste batzuk.

Azkenez, euskerez ez yakiteaz tamal izanik, erderaz, Arellano jaunak itzaldi ederra dago, Naparroako Euskalzaletasuna agertu ta goraturik, ta Euskaltzaindiari biotzetiko agurra ta laguntasun eskintza eginik. Beronek bere, txalo asko entzun dauz.

Beste barik eta batzarkide guztien poz ta atsegin osoan amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga